



SOZIETATEEN GAINETAKO ZERGA



FAMILIA, BERDINTASUNA, KONTZILIAZIOA, EMAKUMEA ETA GAZTERIA

66 quinquies. ART. SZFA

KENKARIA BIZITZA PERTSONALA, FAMILIA ETA LANA UZTARTZEKO NEURRIAK EZARTZEAGATIK.

Zergadunek kenkari bat aplikatu ahal izango dute kuota likidoan langileen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurri berriak ezartzeagatik::

- a) Ordutegiak malgutzeko neurriak.
- b) Lanaldi jarraituaren modalitatean jarduteko aukera ezartzea lehenago langileak lanaldi zatituarekin ari diren lanpostuetarako.
- c) Telelanaren modalitatean jarduteko aukera ezartzea edo zabaltzea.
- d) Lanaldia murrizteko edo eszedentzia eskatzeko kasu berriak sortzea.
- e) Doako haurtzaindegi zerbitzua jartzea langileen eskura, zuzenean edo hirugarrenen bitartez.



f) Enplegatuei bizilekuaren eta lantokiaren arteko joan-etorriak errazteko neurriak ezartzea.

Artikulu honetan aipatzen den kenkariaren zenbatekoa portzentaje hauen arabera izango da:

- a) Zergadunaren kuota likidoaren **ehuneko 5**, **a) - f) bitarteko letretan** aipatzen diren neurrietako bat jasotzen duen kontziliazio plana ezartzen den ekitaldian, **2.500 euroko mugarekin**.
- b) Zergadunaren kuota likidoaren **ehuneko 15**, plantillaren gutxienez heren batek **a) - f) bitarteko letretan** aipatzen diren neurrietako bat, kontziliazio planean bildutakoa, aplikatzen duen lehen zergaldian, **7.500 euroko mugarekin**.



(*) **Mikroenpresek eta enpresa txikiek % 5 handituko dituzte** aurreko letretan ezarritako ehunekoak. Kontziliazio arloan ezarritako neurri berriak zergadunaren kontziliazio planean jaso beharko dira.

Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea. Erregelamendu bidez ezarriko dira betekizunak eta baldintzak.



66 octies ART. SZFA

KENKARIA EMAKUMEEN ETA 36 URTETIK BEHERAKOEN ENPLEGUA SORTZEAGATIK.

Zergaren kuota likidoan kenkaria aplikatzeko eskubidea emango du zergaldian emakumeen edo 36 urtetik beherakoen lan kontratu mugagabea egiteak.

Kenkaria urteko soldata gordinaren % 35ekoa izango da kontratatutako pertsona bakoitzeko, kontratazioa egiten den unean **indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren kenkariaren mugarekin.**

Lanaldi partzialeko kontratua duten langileak: kenkariaren zenbatekoa eta aplikatzeko muga, lanaldi osoa kontuan hartuz uneko lanaldiari proportzionalki dagokiona.

BETEKIZUNAK:

1) Honako hau izan behar du soldatak:

a) Kontratazioaren unean, gutxienez, LGS baino % 10 handiagoa bada.

b) Zergaldian, une horretan indarrean dagoen LGS baino % 70 handiagoa den kontratua gauzatzen den zergaldia amaitu eta hurrengo 3 urteetan amaitzen bada.

* Lanaldi partzialeko kontratua duten langileak: lanaldi osoa kontuan hartuz uneko lanaldiari proportzionalki dagokiona..



2) Kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran (n aldia) lan kontratu mugagabea duten langileen kopurua ezin da murriztu hurrengo hiru urteetan amaitutako zergaldietan zehar (n+1, n+2 eta n+3), eta langileen kopuru hori kenkaria sortzen den zergaldiaren hasieran (n) dagoena baino handiagoa izan behar da, gutxienez, hori jasotzeko eskubidea ematen duen kontratuen kopuru berean.

INGURUABAR BEREZIAK:

1) Ekonomia, teknika, antolaketa edo ekoizpeneko arrazoiak bitarteko, edo ezinbesteko arrazoiak medio, lan harremana etetea edo lanaldia murriztea (LEko 47. art.): betekizunak ez dira bete beharko harik eta lan harremanen etetea edo lanaldiaren murrizketak ondorioak sortzeari utzi arte.



2) Ez da zenbatuko lan kontratu mugagabea duten langileen murrizketa, kontratu bakoitza amaitu eta 2 hileko epean langile kopuru bera kontratatzen bada.

3) Elkarri loturiko erakundeei dagokienez, erakundeen horien egoera kontuan hartuko da.

4) Enpresa berregitratzeko jarduerak egiteak ez du, berez, kenkaririk ekartzen.

EZ BETETZEA:

Betetzen ez den aldia aitortzean, kenkaritik eratorritako kuota eta dagozkion berandutze interesak gehitu beharko dira.



ETXEBIZITZA

32. ART. SZFA

GASTUEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

ONDARE SOZIETATEAK:

Kapital higigarriaren etekinen gastu kengarriak:

1) Azaroaren 24ko 29/1994 Legearen, hirierrentamenduenaren, 2. artikulua arabera etxebizitza errentamendutzat hartutako kontratuetatik etorritakoak.

- % 30, % 35 edo % 50eko hobera etekin osoen gainean.
- Eskuratzean, birgaitzean, edo hobekuntzan inbertitutako besteren kapitalen interesak eta gainerako finantzazio gastuak.

- 
- Aseguruen primak errenten ez ordainketei aurre egiteko (gehienez, 300 € urtean).

2) Beste etxebizitza batzuk erabiltzeko eta gozatzeko eskubideak uztetik edo eratzetik etorritakoak:

- % 10eko hobaria etekin osoen gainean.
- Eskuratzean, birgaitzean, edo hobekuntzan inbertitutako besteren kapitalen interesak eta gainerako finantzazio gastuak.

3) Beste higiezin batzuk erabiltzeko eta gozatzeko eskubideak uztetik edo eratzetik etorritakoak:

- % 30eko hobaria etekin osoen gainean.
- Eskuratzean, birgaitzean, edo hobekuntzan inbertitutako besteren kapitalen interesak eta gainerako finantzazio gastuak.



FISKALITATE BERDEA

21. ART. SZFA

AMORTIZAZIO ASKATASUNA, AMORTIZAZIO BIZKORTUA ETA BATERAKO AMORTIZAZIOA

1) Mikroenpresek eta enpresa txikiek eskuratutako ibilgailu elektronikoetarako amortizazio askatasuna, gauzazko ordainsari gisa egozten zaizkionean erabiltzen dituen pertsonari, edo jarduera ekonomiko bati bakarrik eragiten diola modu frogagarrian egiaztatzen denean, SZFAren 31.3. artikuluan ezarritako mugekin, amortizazio gisa (bateraezina da ibilgailu horien amortizazioan kontuan hartutako gastuei ezarritako garraio elementuen erabilerak ekarritako gastuei buruzko arauekin).

Pertsona batek aldi berean erabiltzen baditu **letra honetan aipatzen diren ibilgailuetako bat baino gehiago**, adierazitako mugak pertsonako eta urteko aplikatuko dira, erabiltzen dituen ibilgailuen kopurua gorabehera.



2) Enpresa ertainek eskuratutako ibilgailu elektronikoetarako amortizazio bizkortua, gauzazko ordainsari gisa egozten zaizkionean erabiltzen dituen pertsonari, edo jarduera ekonomiko bati bakarrik eragiten diola modu frogagarrian egiaztatzen denean, SZFAren 31.3. artikuluan ezarritako mugekin, amortizazio gisa (bateraezina da ibilgailu horien amortizazioan kontuan hartutako gastuei ezarritako garraio elementuen erabilerak ekarritako gastuei buruzko arauekin).

Pertsona batek aldi berean erabiltzen baditu letra honetan aipatzen diren ibilgailuetako bat baino gehiago, **adierazitako mugak pertsonako eta urteko aplikatuko dira, erabiltzen dituen ibilgailuen kopurua gorabehera.**



62. ART. SZFA

IKERKETA ETA GARAPEN JARDUERENGATIKO KENKARIA

KENKARI OINARRIA

Jasotako dirulaguntzen zenbatekoan murrizten da (dirulaguntzaren gaineko zerga eraginaren haztapena kentzen da).

I+G-N EGINDAKO GASTUENGATIKO KENKARIAREN EHUNEKOAK

1) I+G arloko gastuak:

a) %30

b) %35 I+G arloko jardueretan zergaldian egindako gastuetan, zergadunek egindako jarduerak ingurumen eragin negatiboa nabarmen murrizten badute bakarrik. Jarduera horiek, SZFAren 65. artikuluko 1. Atalean ezarritako tipologiekin lotuta egon beharko dute.

2) Zergaldiko I+G arloko gastuak azken bi urteetan egindako batez besteko gastuak baino handiagoak badira:

Batezbestekoa: % 30 (a)) edo % 35 (b)).

Soberakina: % 50 (a)) edo % 55 (b)).

3) % 20ko kenkari gehigarria honako gastu hauengatik:

- Ikertzaile kualifikatuen gastuak, eskusiban.
- Unibertsitate, ikerketako erakunde publiko edo 2093/2008 Errege Dekretuaren arabera onartutako berrikuntza eta teknologia zentroekin edo 221/2002 Dekretuan araututako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean dauden erakundeekin kontratatutako I+G arloko proiektuen gastuak.
- SZFAren 65. artikulua 1. atalean ezartzen diren tipologiei erantzunez, zergadunen jarduerak ingurumeneari daukaten inpaktu negatiboa nabarmen murrizteko inbertsioei lotutako I+G arloko jarduerak egiten dituzten mikroenpresek edo enpresa txikiek kontratatzeke egiten dituzten gastuak



- SZFAren 66 bis artikuluaaren 2. ataleko a) letran xedatzen denaren arabera enpresa berritzailetzat hartzen diren enpresak, I+G arloko jarduerak egiten dituztenak, kontratatzekeo gastuak.

4) Ibilgetu materialeko edo ukiezinako elementuetan egindako inbertsioen % 10, lursailak eta higiezinak kenduta, I+G arloko jarduerari bakarrik lotuta badaude.

65. ART. SZFA

KENKARIA GARAPEN IRAUNKORRA, INGURUMENAREN GAINeko INPAKTUA MURRIZTEA, TRANTSIZIO ENERGETIKOA ETA EKONOMIA ZIRKULARRA SUSTATZEKO PROIEKTUEKIN LOTUTAKO INBERTSIOENGATIK ETA GASTUENGATIK

Kuota likidoaren % 35eko murrizketa, mota honetako gastu eta inbertsioen zenbatekoan:

a) Ibilgetu materialaren aktibo berrietan egindako inbertsioak, iturri berriztagarrietatik etorritako energia sortzeko instalazioak badira (Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren ziurtagiria, edo Zerga Administrazioak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak egindako txosten arrazoitua).



b) Ibilgetu materialaren aktibo berrietan egindako gastuak eta inbertsioak, energetikoki eraginkorrak diren ekipamenduetan eta iturri berriztagarrietatik etorritako energia garraiatzen eta banatzen duten instalazioetan (**Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren ziurtagiria, edo Zerga Administrazioak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak egindako txosten arrazoitua**).

c) Ibilgetu materialaren aktibo berrietan egindako gastuak eta inbertsioak, energetikoki eraginkorrak diren ekipamenduetan eta iturri berriztagarrietatik etorritako energia garraiatzen eta banatzen duten instalazioetan (**Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren ziurtagiria, edo Zerga Administrazioak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak egindako txosten arrazoitua**).



d) Teknologia Garbien Euskal Zerrendan jasotzen diren ekipamendu eta instalazioetan egindako inbertsioak (**Zerga Administrazioak eskatuta Eusko Jaurlaritzak egindako txosten arrazoitua**).

e) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak: energetikoki eraginkorrak diren ekipamenduak, eta erabiltzeko, banatzeko, garraiatzeko, biltegitratzeko edo eskualdatzeko emisioak biltzen dituzten instalazioak, betiere prozesu berriztagarrietan energia berriztagarriak sortzea edo erabiltzea bada helburua (**Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren ziurtagiria, edo Zerga Administrazioak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak egindako txosten arrazoitua**).



f) Ibilgetu materialaren aktibo berrietan egindako inbertsioak, energetikoki eraginkorrak diren ekipamenduetan eta hondakinak murrizteko, birziklatzeko eta balorizatzeko instalazioetan, ekonomia zirkularra egiteko helburuarekin (**Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren ziurtagiria, edo Zerga Administrazioak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak egindako txosten arrazoitua**).



% 15eko murrizketa kuota likidoan honako hauetan:

a) Euskadiko erakunde ofizialek onarturiko proiektuak gauzatzeko asmoarekin lur kutsatuak garbitzeko eta lehengoratzeko ibilgetu materialeko aktibo berrietan zergaldian egindako inbertsioak (**Zerga Administrazioak eskatuta Eusko Jaurlaritzak egindako txosten arrazoitua**).

b) Ibilgetu materialeko aktibo berrietan egindako inbertsioak, baldin eta helburua orain adieraziko diren proiektuetako bat edo batzuk gauzatzeko beharrezkoak badira (**Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren ziurtagiria**):



- Modu materialean balorizatu ezin diren hondakinen balorizazio energetikoa.

-Naturaguneetako ingurumena birsortzea konpentsazio neurrien edo borondatezko beste jarduketa batzuen bitartez, batez ere natura oinarritzat hartuta ekosistemak biziberritzeko

(Jarduketak ez direla borondatezkoak hartuko da nahitaezkoa edo loteslea den administrazio ebazpen baten ondoriozkoak badira). Nolanahi ere, administrazio ebazpen horrek behartutako jarduketa gainditzen duten inbertsioen zatia kendu ahalko da).

- 
- Uraren kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.
 - Oraingo ekipamendu eta instalazioen ordeztasun energia eta baliabideak efizientzia handiagoarekin erabiltzen dituztenak ipintzea, eta baliagarri dauden teknika hoberenak dauzkaten ekipoak eta instalazioak erostea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 2010/75/EB Zuzentarauak ezartzen duenarekin bat etorriz (isuri industrialak eta abeltzaintzaren ondoriozko isuriak; kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuak).
 - Mugikortasun eta garraio jasangarriak, lurreko garraioa salbu.



Teknologia Garbien Euskal Zerrendako ibilgailuen kasuan, kenkariaren oinarria ezingo da izan 40.000 euro baino handiagoa

Alderdi komunak:

Kenkariaren oinarria: jasotako dirulaguntzen zenbatekoan murrizten da (dirulaguntzaren gaineko zerga eraginaren haztapena kentzen da).

Ez da jaregiterik gertatuko artikulu honetan araututako kenkariaz baliatzen diren aktiboak, legeak hala aginduta, hirugarrenei lagatzen zaizkienean.



Kenkarien arteko bateraezintasuna:

- % 35eko kenkari mota bakoitza, beren artean.
- % 35eko kenkari mota % 15eko kenkari motarekin.


67. ART. SZFA

V. TITULUKO III. KAPITULUAN AURREIKUSITAKO KENKARIEN ARAU KOMUNAK

IBILGAILUETAN EGINDAKO INBERTSIOAK: BAKARRIK KENGARRIAK:

1. Salgaiak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailu mistoak.
2. Bidaiariak kontraprestazio bat ordainduta garraiatzeko zerbitzuetan erabiltzen diren ibilgailuak.
3. Fabrikatzaileek probetan, saiakuntzetan, erakustaldietan edo salmenten sustapenean erabiltzen dituztenak.

- 
4. Kontraprestazio truke gidariei eta pilotuei irakaskuntza zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen direnak.
 5. Zaintza zerbitzuetan erabiltzen direnak.
 6. Eskuarki ibilgailuak alokatzen jarduten duten entitateek kontraprestazio bidezko alokairu-jarduera horretan soil-soilik eta egiaz erabiltzen dituzten ibilgailuak.
 7. Ontziak, laketontziak edo uretako kiroletarako ontziak eta aipatutako garraiobideak modu jarraituan ustiatzen duen jarduera ekonomikoaren garapenean bakarrik eragiten duten aireontziak, zergadunak egiaztatzen badu beharrezko baliabide materialak eta giza baliabideak dituela jarduera ekonomiko hori egiteko.



GIZARTE AURREIKUSPENA

66 SEXIES. ART

KENKARIA BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ENTITATEETAKO LEHENTASUNEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO PLANETARA ENPRESEK EGINDAKO KONTRIBUZIOENGATIK.

Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara enpresek egindako kontribuzioek kenkaria aplikatzeko eskubidea emango dute. Kenkari hori honela aplikatuko da:

- a) Enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren % 1,5 edo gehiago eta % 2,5 baino gutxiago bada, kenkaria % 15ekoa izango da.



b) Enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren % 2,5 edo gehiago eta % 4 baino gutxiago bada, kenkaria % 20koa izango da.

c) Enpresek egindako eta langileei fiskalki egotzitako kontribuzio horiek entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren % 4 edo gehiago bada, edo 36 urtetik beherako pertsonen aldekoa, kenkaria % 25ekoa izango da

Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei zergan egotzitako kontribuzioen batura izango da.

66. SEPTIES. ART

KENKARIA ENPRESEK ENPLEGUKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO SISTEMETARA EGINDAKO KONTRIBUZIOENGATIK

Enpresek SZFAren 66 sexies artikuluan ezartzen direnak ez beste kontribuzio batzuk egiten badituzte enpleguako gizarte aurreikuspeneko sistemetara, kontribuzio horien % 10eko kenkaria aplikatu ahal izango da zergaren kuota likidoan, baldin eta haien zenbatekoa entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordin osoaren % 1,5 edo gehiago bada, edo 36 urtetik beherakoen alde.

Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei zergan egotzitako kontribuzioen batura izango da.

(EBko edo EEEko beste estatu batzuen legediaren babespean sortutako aurreikuspen sistemetara egindako kontribuzioak onartzen dira, enpleguako gizarte aurreikuspeneko sistemetan aplikatzekoa den arautegia betetzen badute).

BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ENTITATEETAKO LEHENTASUNEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO PLANETARA EGINDAKO KONTRIBUZIOAK.

2025eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra bitarteko zergaldietan zergadunek langileei egotzitako kontribuzioak egiten badituzte negoziazio kolektiboaren ondorioz borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko gizarte aurreikuspeneko planetara, ekarpen horiek eskubidea emango dute zergaren kuota likidoan % 10eko kenkaria aplikatzeko, baldin eta kontribuzio horien guztirako zenbatekoa entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordinaren % 1,5 baino gutxiago bada.

Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei zergan egotzitako kontribuzioen batura izango da.

Kenkari honi SZFAren 59. eta 67. artikuluetan ezartzen diren arauak aplikatuko zaizkio.

HOGEITA BEDERATZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

ENPLEGUKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO SISTEMETARA EGINDAKO KONTRIBUZIOAK.

2025eko urtarrilaren 1etik 2029ko abenduaren 31ra bitarteko zergaldietan zergadunek langileei egotzitako kontribuzioak egiten badituzte negoziazio kolektiboaren ondorioz SZFAren 66 septies artikuluan aipatzen diren enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetara, ekarpen horiek eskubidea emango dute zergaren kuota likidoan % 5eko kenkaria aplikatzeko, baldin eta kontribuzio horien guztirako zenbatekoa entitate enplegatzaileak urtean ordaindutako soldata gordinaren % 1,5 baino gutxiago bada.

Kenkariaren oinarria negoziazio kolektiboaren ondorioz langileei zergan egotzitako kontribuzioen batura izango da.


Kenkari honi SZFAren 59. eta 67. artikuluetan ezartzen diren erregelak aplikatuko zaizkio.

HOGETA HAMARGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

ENPLEGUKO AURREIKUSPEN SISTEMETARA, BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENENKO ENTITATEETAKO LEHENTASUNEZKO AURREIKUSPEN PLANAK EZ BESTE BATZUETARA, EGITEN DIREN KONTRIBUZIOEN ARAUBIDEA

66 sexies artikuluan eta hogeita zortzigarren xedapen gehigarrian ezartzen dena borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko aurreikuspen planak ez diren enpleguko aurreikuspen sistemetara egindako kontribuzioei aplikatuko zaie, baldin eta, horien zehaztapenekin bat etorriz, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetako lehentasunezko aurreikuspen planei buruzko araudian ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

(EBko edo EEEko beste estatu batzuen legediaren babespean sortutako aurreikuspen sistemetara egindako kontribuzioak onartzen dira, enpleguko gizarte aurreikuspeneko sistemetan aplikatzekoa den arautegia betetzen badute).



PRODUKZIO-SAREAREN PROGRESIBOTASUNA ETA BULTZADA

32. ART.

GASTUEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

ZERGA KONPENTSAZIOA MIKROENPRESEN ZAILTASUNENGATIK

Beren zerga-oinarri positibotik % 15 ken dezakete beren zerga-oinarritik, pizgarri horren eta besteak beste, SZFAren 48. (nazioarteko gardentasun fiskala), 73. eta 74. (Interes ekonomikoko elkarteak) eta 75. (aldi baterako enpresa elkarteak) artikuluen eta arau beraren 22. xedapen gehigarrian (SZren sozietate zibil zergadunak) ezarritakoaren arabera, tamainari loturiko zailtasunengatik egindako zerga konpentsazio gisa, egozten diren errenten integrazioaren aurretik.

55. ART

ZERGA OINARRI NEGATIBOEN KONPENTSAZIOA

Zerga oinarri positiboaren % 70eko muga kendu da mikroenpresa eta enpresa txikien zerga oinarri negatiboaren konpentsazioan, zergak zerga kontsolidazioan ordaintzen badituzte izan ezik. Halakoetan, aplikatzeko muga zerga-oinarri positiboaren % 50 izango da.

56 ART

KARGA TASA

ONDARE SOZINETATEAK:

AURREZKIAREN LIKIDAZIO OINARRIA/HONAINO EUROTAN	KUOTA OSOA EUROTAN	LIKIDAZIO OINARRIAREN HONDARRA/ HONAINO EUROTAN	TASA APLIKAGAR RIA EHUNEKOA
7.500,00	0,00	7.500,00	19%
15.000,00	1.425,00	7.500,00	20%
30.000,00	2.925,00	15.000,00	22%
50.000,00	6.225,00	20.000,00	24%
90.000,00	11.025,00	40.000,00	25,50%
120.000,00	21.225,00	30.000,00	26%
240.000,00	29.025,00	120.000,00	26,50%
300.000,00	60.825,00	60.000,00	27%
7.500,00	77.025,00	Aurrerantzean	28%



KARGA GEHIGARRIA

- Ondorioak 2026eko urtarrilaren 1etik hasi eta 2030eko abenduaren 31n amaitzen diren zergaldietan.
- % 24ko eta % 31ko (hobiak aztertzen, ikerketzen eta ustiatzen eta hidrokarburoak lurpean biltegitratzen dituzten erakundeak) karga tasa orokorrekin tributatzeko duten zergadunei aplikatzen zaie, enpresa ertainak ez direnei, eta zergaldian aurreko hiru zergaldietan lortutako kontabilitate emaitza positiboen batezbestekoa baino % 35 handiagoa den kontabilitate emaitza positiboa lortzen badute, erregelamenduz ezartzen diren baldintzen arabera.



- Ehuneko hauek aplikatuz lortuko den kuota osoaren igoera:

* Zergaoinarriaren gehikuntzari dagokion kuota osoaren zatiari, aipatutako gehiegizko kuotatik eratorritakoa, aurreko hiru zergaldietako kontabilitate emaitzen batezbestekoa baino % 35 handiagoa edo % 50 baino txikiagoa edo horren berdina bada, % 1eko tasa gehigarria aplikatuko zaio.

* Zergaoinarriaren gehikuntzari dagokion kuota osoaren zatiari, aipatutako gehiegizko kuotatik eratorritakoa, aurreko hiru zergaldietako kontabilitate emaitzen batezbestekoa baino % 50 handiagoa edo % 75 baino txikiagoa edo horren berdina bada, % 2ko tasa gehigarria aplikatuko zaio.



* Zergaoinarriaren gehikuntzari dagokion kuota osoaren zatiari, aipatutako gehiegizko kuotatik eratorritakoa, aurreko hiru zergaldietako kontabilitate emaitzen batezbestekoa baino % 75 handiagoa edo % 100 baino txikiagoa edo horren berdina bada, % 3ko tasa gehigarria aplikatuko zaio.

* Zergaoinarriaren gehikuntzari dagokion kuota osoaren zatiari, aipatutako gehiegizko kuotatik eratorritakoa, aurreko hiru zergaldietako kontabilitate emaitzen batezbestekoa baino % 75 handiagoa edo % 100 baino handiagoabada, % 4ko tasa gehigarria aplikatuko zaio.

59. ART

BENETAKO KUOTA ETA GUTXIENeko TRIBUTAZIOA

% 24ko karga tasa orokorrarekin tribututzen duten zergadunak:

Benetako kuota zehazteko kuota likidoaren gaineko kenkaria aplikatzeak (betiere SZFAren 62-64., 64 bis., 65., 66 ter eta 66 quater artikuluetakoak ez beste guztiak) ezin du ekarri benetako kuota, oro har, zerga oinarriaren % 19 baino txikiagoa izatea (lehen, % 17).



Aipatutako ehunekoa honela murriztuko da:

- **Ehuneko 17**, langile finkoen kopuruaren batezbestekoa mantentzen badu, aurreko ekitaldiarekin alderatuz, edo SZFAren 61-65 artikuluetan jasotzen diren kenkariak sortzen dituen inbertsioetako bat egiten badu.

- **Ehuneko 15**, bi inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

- a) Langile finkoen kopuruaren batezbestekoa mantentzen badu, aurreko ekitaldiarekin alderatuz, eta SZFAren 61-65 artikuluetan jasotzen diren kenkariak sortzen dituen inbertsioetako bat egiten badu.

- b) Aurreko ekitaldiarekin alderatuta finkoak diren langileen batezbestekoak gora egin du.



BESTELAKO NEURRIAK

14. ART.

ONDARE SOZINETATEA ZER DEN

Aktiboaren osaera zehazteko:

Jarduera ekonomikoei atxikitako elementutzat joko dira altxortegia eta beste finantza-aktibo batzuk, partaidetza kualifikatuetatik eratorritakoak badira, bai eta jarduera ekonomikoei atxikitako beste ondare-elementu batzuk eskualdatzetik badatoz ere, betiere zenbatekoa, zuzenean edo zeharka, enpresa-proiektuetan berrinbertitzen bada altxortegia lortu eta hurrengo hiru urteetan.

Enpresa-proiektuetan zeharka berrinbertituko da, bereziki, partaidetza hartzen denean partaidetza eskualdatzetik eratorritako dibidendu eta errentengatik salbuespen osoa aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten erakundeetan.



Orokorrean aurrez ikusten den hiru urteko epean edo administrazioak baimendutako epe luzeagoan berrinbertitzeko eskakizuna betetzen ez bada, berrinbertitu gabeko altxortegia edo beste finantza-aktibo batzuk jarduera ekonomikoei atxiki gabeko ondare-elementutzat joko dira sortu ziren egunetik, eta, bidezkoa bada, ekitaldi hartatik zergadunaren zerga-egoera erregularizatuko da arauz ezartzen den baldintzetan.

Zerga Administrazioari eman beharko zaio araudian ezartzen den informazioa. Zergaren aitopenearekin batera aurkeztu beharko da.

31. ART.

GASTU KENEZINAK

Ez dira gastu kengarriak zerga ordainketarako:

Sozietateen gaineko Zerga eta zerga osagarria kontabilizatzearen ondoriozkoak.

Garraio elementuak.

- Erregimen orokorra, auto, motozikleta, ziklomotor eta atoiatarako
- Hautazko erregimena (modu frogagarrian egiaztatzen bada benetako eragina duela, edo gidariari gauzazko etekin gisa egozten bazaio)

Esk. eta alok, lagapen edo balio galera

- Gastuaren% 50 GUTXIENekoaren mugan, zati: % 50 x amort. koef x30.000 3.000 ibil/perts/urtean
- Gastuaren% 100 GUTXIENekoaren mugarekin zati amort. koef. x30.000eur 6000eur ibil/perts/urtean

Mantentzea, konpontzea eta erabiltzea

- Gastuaren % 50, 3600 euroko mugan ibil/perts/urtean
- Gastuaren % 100, 7200 euroko mugarekin ibil/perts/urtean

Finantza gastuak

- Gastuaren% 50 Baldin eta esk. pr.>30.000 30.000ko ratioa aplikatuta/ibilgailuaren esk.
- Gastuaren% 100 Baldin eta esk. pr. >30.000 30.000ko ratioa aplikatzen da/ibilgailuaren esk.

Bi arau horiek aplikatuko dira erakundearekin lotutako ordezkariak eta merkataritza agenteek erabilitako ibilgailuetarako, mantentze, konponketa eta erabileragastuei dagokiona izan ezik, mugarik gabe kendu ahalko baitira.

BATERIADUN IBILGAILU ELEKTRIKOAK (BIE), AUTONOMIA HEDATUKO IBILGAILU ELEKTRIKOAK (AHIE), ERREGAI ZELULEN IBILGAILU ELEKTRIKOAK (EZIE) EDO ERREGAI ZELULEN IBILGAILU ELEKTRIKO HIBRIDOAK (EZIEH) ERABILTZEAREN ONDORIOZKO GASTUAK

Zergadunak modu frogagarrian egiaztatzen badu ibilgailua jarduera ekonomiko baterako bakarrik erabiliko duela, ibilgailu horiek erabiltzearen ondoriozko gastuak osorik kendu ahalko dira, gehieneko mugara arte. Alde batetik, 8.000 euro, edo zergadunak erabilitako amortizazio ehunekoa bider 40.000 euro ateratzen den zenbatekoa; zenbateko txikiagoa bada eta ondare elementua amortizatzen bada, errentamendu, lagapen eta balio galera gisa. Bestetik, 7.200 euro erabileraren inguruko gainera kontzeptu guztiengatik.

Aipatutako ibilgailuen erosketarekin zerikusia duten finantza gastuen kenkaria, ibilgailuaren eskuratze prezioa 40.000 eurotik gorakoa denean, zenbateko horri dagokion zati proportzionala, gehienez.



33. ART.

DIBIDENDUEN ETA MOZKINETAKO PARTAIDETZEN GAINKO ZERGAPETZE BIKOITZA EZABATZEA.

Ez dago dibidenduak eta partaidetzak ez integratzerik, banatzen den irabazia eska daitekeen dataren aurreko hiru urteetan partaidetza erosi duten zergadunek jasotako irabazietan, partaidetza balioesteko, enpresen berregituraketan erregimen bereziaren arauak jarraitu bazaie, eta arau horiek aplikatzearen ondorioz, ekarpenak egiten dituen pertsonarentzat EPrik gabe aritzen diren zergadunen PFEZ edo EEZren zerga oinarrian errentak ez badira integratu, betiere pertsona horrek dibidenduen ezarpen bikoitza kentzeko eskubiderik ez badu. Nolanahi ere, salbuespen bat ere badago: jasotako dibidenduen zenbatekoa enpresa proiektuetan berrinbertitzen bada, edo bestela, bazkideei banatzen bazaie.



34. ART.

ERAKUNDEETAKO PARTAIDETZA ESKUALDATUZ LORTUTAKO ERRENTEN GAINEKO ZERGAPETZE BIKOITZA KENTZEA

Eskualdatutako partaidetza enpresen berregituraketen erregimen bereziaren arauen arabera, eta arau horiek aplikatzearen ondorioz, baita aurreko eskualdaketa ere, erakundeetan partaidetzak ekartzearen ondoriozko errentak ez badira integratu EPrik gabe aritzen diren zergadunen PFEZ edo EEZren zerga oinarrian, eta erakunde eskuratzailerak ekarpena egin zuen datatik hiru urte igaro baino lehen eskualdatzen badu, ez integratzea ez da aplikatuko erakunde eskuratzailerak jasotako partaidetzen zerga balioaren eta eskuratu zen unan zuen merkatu balioaren arteko alde positiboaren gainean, salbuespen honekin:

- 
- Frogatzen bada ekarpena egin duenak entitate onuradunean eduki duen partaidetzaeskualdatu duela hiru urteko aldian.
 - Erakunde eskuratzailerak enpresa proiektuetan eskualdaketan lortu zuen zenbatekoa berrinbertitzen badu.



KENKARIA HIRI BIZIKLETETAN INBERTITZEAGATIK

Honako hau izango da **gehieneko kenkari** oinarria bizikleta bakoitzagatik:

Pedalei eragiteko motor elektrikoaren laguntza duten bizikletak: **3.000 euro**.

Bestelako hiriko bizikletak: **500 euro**

Kenkari honen urteko **guztirako oinarria** ezin da izan **15.000 euro baino gehiago**, mikroenpresa edo enpresa txikia diren enpresentzat, ez 20.000 euro baino gehiago gainerako entitateentzat.

Kenkariaren oinarria: jasotako dirulaguntzen zenbatekoan murrizten da (dirulaguntzaren gaineko zerga eraginaren haztapena kentzen da).



Kenkaria baliatzeko, egindako inbertsioak ibilgetuaren barruan kontabilizatu beharko dira, gainerako ondare elementuetatik bereizita eta hura identifikatzeko aukera ematen duen epigrafean.